

**2022KO UZTAILAREN 27AN EGINDAKO  
EZ-OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Alkate-Lehendakaria**

Gorka Murua Macuso

**Zinegotziak**

Noelia Lataburu Ortiz  
Mikel Iturbe Saizar  
Olaia Nieto Legarra  
Leticia Aristi Oria  
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga  
Jose Ramón Epelde Irizar  
María Cristina Santos San Sebastian  
Marta Castrillo Iturralde

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Goizeko 10:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2022ko uztailaren 27an goizeko 10:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko EZ-OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

**1.- UDAL ORDENANTZA FISKALEN, KULTUR ETA KIROL IKASTAROEN PREZIOEN BEHIN-BEHINEKO ALDAKETAREN PROPOSAMENA.**

Alkateak hartu du hitza, azaldu du, ikastaroak ematen jarraitzeko sistema aldatuko dela, bi deialdi egitetik deialdi bakarrera pasako direla.

Erabiltzaileek jasango duten eragin ekonomikoa oso txikia izango dela adierazi du, hain zuzen, 0,10 xentimoko aldea.

Hipopresiboak	2021/2022an 34 ordu =100+50=150€	2022/2023an 29 ordu=127,94€
Yoga	2021/2022an 51 ordu= 105+52 =157€	2022/2023an 43,50 ordu=133,91€
Ciclo indoor	2021/2022an 66 ordu= 180 +90 = 270€	2022/2023an 56 ordu=235€
Pilates	2021/2022an 34 ordu=100+50 =150€	2022/2023an 29 ordu=127,94€
Zumba	2021/2022an 67 ordu= 144+ 72= 216€	2021/2022an 59 ordu= 190.2€
Crostraining	2021/2022an 65 ordu= 144+72 =216€	2021/2022an 59 ordu= 196,06€
FJZ	2021/2022an xx ordu=	

Ondoren bozketa izan da eta onartu ondoren prozedurarekin jarraitu daiteke, GAO aldizkarian argitaratu eta jendaurrean 30 baliodun egunez egon ondoren behin betikoz onartuak geratuko dira kuota berriak.

#### **BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 10:15tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**